

Txomin Garmendia Galarza

*Berrobi,
Gipuzkoa
(1934-2022)*

Aurkibidea

Biografia



Berrobiko Tontolabekoa baserrian jaioa, lanbide askotan jardundakoa da Txomin Garmendia: nekazari, arotz, taxista, liburu-saltzaile, bertsolari... Berrobiko alkate ere izana da. 1980an istripu batean min hartu eta idazteari ekin zion (bertso-liburuak eta kontakizunak gehienbat).

Zintak

BRB-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2009-11-10
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Biografia

- **Erref:** BRB-001/001
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Txomin Garmendia Galarza Berrobin jaio zen 1934eko otsailaren 3an, Tontolabekoa baserrian. Baserria orain deseginda dago. Baserri zaharra zen, eta maizterrak ziren.</p>

Transkripzioa

- Beno, ba, lenengo zure izen-abizenak esaten badizkiazu ta nungua zean ta.
- Uain segitu in behar det.
- Bai, zuk esan e.
- Ba, nere izen-abizenak: Txomin Garmendia Galarza. Eta Berrobin jaioa, milla beatzirehun ta hogeta hamalagarren urtean, otsailan hiruan, eta hain zuzen, ba, aurtan hirurogeita hamabost urte. Eta hortik aurrea hemen gabiltze.
- Ze baserritakoa zea zu, Berrobikoa?
- Ba ni Tontolabehekoa. Batzuk Tontolabehera, bestek Tontolazpikoa... Bi Tontola die ta bat da goie, ta gurea zan behekoa. Hau da, batzuk "azpikoa", bestek "behekoa", baiño garbi dao, Euskal Herrian, ba, bi baserri izen berekok dienen, beti izaten da goikoa eta behekoa, jakiñe. Eo baita're zaharra edo berrie, jakiñe. Ta gurentzako ez zan gaizki etorriko "zaharra"re, zaharra da ta; eo zan ta, uain deseginda dao.
- Bai o?
- Bai.
- Zer zan baserri haundiya?
- Ez, bea basarri oso txikie zan, baiño aldamenean bagendun beste basarri moduko bat, bere terrenoakin, ta haiekintxe pixkat moldatzen giñen. Baiño gu bizi giñan baserrie, maizterrak giñan, eta oso basarri zaharra zan, ta han ez zeon irauteik. Eta [ahal eiñ guztie] iraun genduan, baiña, azkenen eroitzeke moduan jarri zan, eta udaletzeko baimenakin ta abar, uain, ba, kendue dao, tapatue dao.

2. Baserrian, lan asko eta diru gutxi

- **Erref:** BRB-001/002
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak

Laburpena:

<p>Bost senidetan zaharrena da, baina orain bi bakarrik bizi dira. Baserriko bizimodua oso gogorra zen. Etxean abereak zituzten. Garia ere egiten zuten. Lana asko egin eta gutxi irabazten zuten. Gaur kexatu egiten gara, baina bizimodu latza ordukoa zen. Hala ere, baserrietan gerraostean ez zuten goserik pasa.</p>

Transkripzioa

- Zer ziñaten famili haundiya?
- Ba gu izan giñen bost senide, ta bat, laugarrena, jaio ta laister hil zan, gogoatzen naiz. Ta ni, zaharrena. Ta uain, lau bizittu giñan urte askuan, ta uain bi bakarrik bizi gea. Bat hil zan, hemen Urnietan, laneko istripuz, etxe bat eroita, ta bestea [kamerosetan] ehizen zeola. Uain bizi gea zaharrena ta gaztena, ni zaharrena ta gaztena lbarran bizi dana.
- Ta etxian ze, ze bizimodu izaten zan garai hartan?
- Etxean, etxean, ba, ni zaharrena nitzen, maiorazkoa, esaten dan bezela. Eta, badakizu, baserriko bizimodue garai hartan oso gogorra: lau behi, bost behi, lau txekor, eta hortik kanpoa, ba, oillo mordo bat, txerri bat urteako gizentzeko eta horrela, artoa ta babarruna, garie, [...] kosetxak, eta lana galanki eta irabazi gutxi.
- Bai, ezta? lan gogorra.
- Gaur baserritarrak keja die, arrozoiakin, esnearen prezioa eta haragiana ta abar ta abar. Urdun dirue gaur baiño gehio itten zun esneak eta haragiak, konformaziokoa, baiña gutxi izaten zan, lau behiekin... ta behiek in behar zuen uztarrin! Ta uztarrria itten dun ganaduak esne gutxi ematen du. Eta, ba, urduko basarritarra bizi zan, ba, hirugarren munduan bezela: bi orduko bidean garotaa-ta ganadukin. Gaur hoi sinisteik ez dao. Ta beti lanak in eziñik. Eta morroia ta neskamea pagatzeko komeriak. Eta, ba, ba... Gaur jendea keja da arrozoiakin, baiño urdun zan jendea bizimodu latzean. Eta gerra ondoren hartan zan, ba, gosea. Ta basarritarrak bentaja hoixe izan gendun: gerra ondoren hartan basarrin ez gendula goserik; taloa, esnea, ta babarruna ta patata baziela nahikoa, ta horri eskerrak. Kalean ez zan holakorik eta gorriak pasa izango zittuzten, kaleko kontuak entzuten dittugunez. Baiña, gaiñantzen, holakoxe bizimodua izan da gurea.

3. Gerra garaia Berrobin

- **Erref:** BRB-001/003
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:04:06. **Bukatu:** 00:06:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian, nazionalak kapital bat hartzen zutenean, herriko kanpaiak jotzen zituztela gogoan du. Bilbo hartu zutenean, Berrobin kanpaiak jo zituzten. Berrobin bi mutil hil ziren gerra garaian. Gerratik itzulitakoek zorriak ekartzen zituzten. Lan gutxi zegoen. Gorriak pasa zituztela kontatzen zuten.

4. Gerra denboran, abertzaleek gaizki pasa zuten

- **Erref:** BRB-001/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:06:02. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerra ondoren, kontu handiz hitz egiten zen. Etxean Argia aldizkaria jasotzen zuten, eta hori gaizki ikusia zegoen. Batek baino gehiagok alde egin zuten herritik. Abertzale zirenek gaizki pasa zuten. Ilea moztutakoak ezagutu zituen.

5. Euskararekiko zaletasuna

- **Erref:** BRB-001/005
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:09:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Arantzazuko egutegia etxean edukitzen zuten, eta gustu handiz irakurtzen zuen egunero, euskaraz zelako. Arantzazuko aldizkaria ere jasotzen zuten. Bertsoak gustatzen zitzaizkion. Txirritaren testamentua deituriko liburuxka bat eduki zuen. Zaletasun handia zuen.

Transkripzioa

- Ta zuri, zu Berrobin jaio, baserrin eon, ta nola etorri zitzaizun zuri irakurri, idatzi...?

- Bai, nik, irakurtzeko zaletasuna ikuskarrie izan det beti. Gogoatzen naiz noiz sortu zan Arantzazuko egutegi edo kalendarioa euskeraz, eta hue zan nere poza, egune etorri zai, hari orrialde bat kentzeko ta irakurtzeko euskeraz. Gero hasi zan gure etxean Arantzazuko errebista, hilero, ta han ´e orrialde bat o beste etortzen zan euskeraz. Eta `Basarri´ren berso batzuk´e bai, eta bazan beste bersolari bat, ezautu nun nik justu-justu, aitton bat Arantzazun, Graziano, Anduagako Graziano. Bersok jartzen ez zan txarra. Ta haren berso batzuk etortzen zien, orrialde... bono, hillero ez,

baiño orrialde batzutan. Ta haiekintxe nere gustoa, pozik izaten nintzen ni, haiek, haiek... hue gozamina! Nik rebiste hoi hartu ta hango euskerazko lanak irakurri arte ez nun rebista hoi uzten. Nik... ta esaten badizut, bertso paperak, berriz, han ta hemen aitte zanak peritik ekarrita. Ni entzunda nao... bazan liburu txiki bat `Txirritan Testamentue´, ta nik eskuatu nunen illuntze batean, ez dakit nundik, gure aitte zanak ekarri zun nunbaittetiken edo, eta eskutan `Txirritan Testamentu´ liburuxka hori nula jun nitzen behiek jeztea! Ta behiek jetzi ta liburue irakurri, txandaka. Behiek jetzi eta afaldu arteko betarik ere ez, liburu huaxe jan in behar. Ikuskarrie zan ne, nere zaletsune. Gehio're izango zien, ta bersolari danak seguru asko zaletasun hoi, baiño ni baiño gehio ez dao izateik, nik nun baiño gehiago.

6. Eskola Berrobin, Elduan eta Ibarra

- **Erref:** BRB-001/006
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:09:52. **Bukatu:** 00:12:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

<p>Berrobiko eskolan denbora gutxi pasa zuen. Elduako auzoan beste eskola bat zegoen, eta hara joaten ziren. Ibarra ere eskola partikularrera joaten ziren arratsaldero. Komunio handia eta gero utzi zuen eskola. Berrobiko apaizak umeak eskolara bidaltzeko gomendatzen zuen beti.</p>

7. Txominen gurasoentzat eskola izatea oso garrantzitsua zen

- **Erref:** BRB-001/007
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:12:33. **Bukatu:** 00:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Gurasoek eskola bidaltzeko gogoaz bazuten, garrantzia ematen zioten. Erdaraz ikastea ere baliotsua zela uste zuten.</p>

8. Lan askotatik pasa da

- **Erref:** BRB-001/009
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:15:12. **Bukatu:** 00:18:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

<p>Lan askotatik pasa da. Kanposantuan lana egin du, alkate bezala ere bai. Baserritik kanpo lehen pausoak arotz bezala eman zituen. Anaiaren aroztegia lana egiten zuen. Hasieran etxeetako ateak egiten zituzten. Ate sinpleak izaten ziren, oso arinak. Mandrilak egiten ere ibili zen.</p>

9. Taxi gidaria izan zen urtebetez

- **Erref:** BRB-001/010
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:18:02. **Bukatu:** 00:20:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Lanbideak

Laburpena:

<p>Elbarritu ondoren lana aldatu behar izan zuen. Taxi gidari bezala urtebete egin zuen, kotxe berriko zergak ez ordaintzeko. Egun haietako pasadizoak kontatzen ditu.</p>

10. Bertsotan herriz herri

- **Erref:** BRB-001/011
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:20:54. **Bukatu:** 00:25:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Egunkarietan idazten hasi zen. Bertso liburuak ere idatzi zituen. Bertsolari bezala herriz herri ibili zen; Gipuzkoako herri gehienetan abestu du. Garai batean bertsotara egun osorako joaten ziren. Gaur egun, berriz, plazako saioa bukatu ondoren lana bukatzen da. Jendea gustura utzi behar izaten zen, eta horretarako asko abestu behar izaten zen.</p>

11. Bertsolarien gaiak gobernuak jartzen zituen

- **Erref:** BRB-001/012
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:25:43. **Bukatu:** 00:27:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Garai batean bertsolaritzan politika asko sartzen zen, eta, hori eragozteko, Espainiako gobernuak gaiak jartzen hasi zen. Zigorrik ez diote inoiz jarri, baina larrialdiak pasa ditu abestutakoarengatik. Lazkao Txiki rekin gertatutako pasadizoa.</p>

Transkripzioa

- Ta gaiak eta, zeri buruz kantatzen zenuten ordun?
- Ba, gaiak, gaiak... izan zan garai bat, gaiekin ta politikan-ta jendea nabarmendu zana ta gobernoa hasi zana kargu hartzen ta gora-behera, eta herri batean bersolarik jarri behar balin bazien, ba, antolatzaile hoik gobernoa pasa behar zuten ze gai izango zien. Eta nola garai hartan Urtain zana zeon modan oso, ba, kontue papera betetzetiken, baiño Urtain izango zala gaie kantatzeko ta... Gero beste milla gai erabiliko zien, baiño behintzat papera betetzeko gobernoantzako hola ibiltzen zan garai baten antolaitzailea.
- Eta zigorrak eta?
- Ez, nik ez det izan zigorrik. Badie zigorrak izandakoak. Larri ibilita nao bai ni're o estuasun bat pasata nao. E, hain zuzen, Orixe zanan omenajea zan Orexan. Ta ez dakit nabarmenkerin batzuk-o kantatu izango giñuzen gobernoan kontra eo zerbaitte hola, edo Euskal Herrin alde, eta hurrungo egunen apaiza etorri [zaianen], herriko apaiza, etxea, ba, guardia zibillak etorriko ziela nere bille o kargu hartzea eo, Orexako gorabeherangatiken. Ta ni "ze pasako ote da, ze pasako ote da oain?", ez zan iñor azaldu. Eta holako beste estuasun bat o beste izan zittekeen nunbaitte, baiño ez, holako gauza haundiik ez. Gogoatzen naiz Lazkao Txiki zana ta biok Basauria eo horko Bilbo inguruko herri batea jun giñen. Ta zaben... jaialdie zan, bersolari jaialdie zan zine-etxe baten, ba, huelgan zaren jende batzuri laguntzeko. Baiño jaialdi hori jarri zan baimenik gabe, ikusten danez. Ta gogoatzen naiz ate nausitik sartu giñen zine hortara, baiño atzeko atetiken, kontrabandon bezela, nola ihes ein genduan, nola esan ziguten. Baiño hala bukatu zan.

12. Kartzelan sartu zuten armadari buruzko bertsoak idazteagatik

- **Erref:** BRB-001/013
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:27:44. **Bukatu:** 00:32:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldaduskako bertsoak egitea gustatu zaio. Haietako bertso batzuk lizentziatu ondoren kintoen bazkari batera eraman zituen, eta Arantzazuko fraideen inprentara iritsi ziren; beraien aldizkarian argitaratu zituzten. Norbaitek parte eman zuen, eta horren ondorioz kartzelan sartu zuten.</p>

13. Berrobin baltsean ibiltzen ziren plazan

- **Erref:** BRB-001/016
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:34:18. **Bukatu:** 00:38:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Berrobin berezitasun bat zegoen garai batean: inguruko herrietan ez bezala, Berrobin baltsean dantza egiten zuten festetan. Apaizak protestatzen zuen, baina hala ere mantendu egin zen. Beste herrietan taberna barruan bakarrik egiten zuten baltsean dantza.</p>

14. Mutilak neskak baino libreago ibiltzen ziren

- **Erref:** BRB-001/017
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:38:17. **Bukatu:** 00:40:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Esaera zaharrak dio: "Izarrak irtetean, bego neskak etxean". Neskak apaizaren beldur eta gurasoen beldur ziren. Fama txarra berehala hartzen zuten. Mutilak libreago ibiltzen ziren.</p>

15. Bertsolari famatuekin kantuan

- **Erref:** BRB-001/018
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:40:29. **Bukatu:** 00:44:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Txomin parrandazalea izan da. Tabernan bertsotan ibiltzea gustatzen zitzaion. Uztapide eta Lasarte bertsolariekin ibili zen. Lehen aldiz Uztapide rekin abestu zuen eguna gogoratzen du. Afalostean askotan bertsoak eskatzen zizkioten.</p>

16. Elduainen afaria Berastegitik bueltan

- **Erref:** BRB-001/021
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:50:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Berastegitik bueltan Elduainen askotan afaltzen zuten. Afaria hogeita lau pezeta kostatzen zitzaien. Afaltzeko arrain-zopa, tortilla edo txuleta eta postrea jaten zituzten.</p>

17. Garai bateko neskek bertsoak ez zituzten gustuko

- **Erref:** BRB-001/023
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:52:35. **Bukatu:** 00:54:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Bertsoak eta gero neskatan ibiltzeko aukera asko ez zuten izaten, garai hartan neskei bertsoak ez zitzaizkielako gustatzen. Gaur neskek ere zaletasuna badute. Neskek dantza nahiago zuten bertsoak baino.</p>

18. Bertsolaritza liburuak saltzen ibili da

- **Erref:** BRB-001/025
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:55:52. **Bukatu:** 00:57:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Azken urteetan bertsoen inguruko liburuak saltzen ibili da, Sendoa argitaletxearekin.</p>

19. Berrobiko alkatea izan da hiru legealditan

- **Erref:** BRB-001/026
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:57:04. **Bukatu:** 01:00:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

<p>Franco hil ondoren alkate aukeratu zuten. Hiru legealdi osatu zituen. Gogotsu hasi zen baina bukaerarako nekatu ere egin zen. Alde onak jendea ezagutzea eta jendearekin harremanak izan dira; txarrak berriz, haserreak. Lan handia egin zen Berrobin, eta inguruko herrietan ere bai. Gauzak asko hobetu dira.</p>

20. Beste bertsolariekin izandako harremana

- **Erref:** BRB-001/028
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:03:00. **Bukatu:** 01:05:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Bertsotan herriz herri ibili denetan gehienetan pozik itzuli da. Lagunekin ere beti ongi konpondu da. Bertsolari guztiak lagunak dituela pentsatzen du, baina harreman hoberena Etxeberriarekin izan du. Berarekin ibilitako beste bertsolariak aipatzen ditu.</p>

21. Idatzi dituen liburuak

- **Erref:** BRB-001/029
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:05:33. **Bukatu:** 01:08:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Txominen bertsoen inguruan liburu bat argitaratu behar dute. Bost liburu ditu idatziak. Iñaki Linazasororekin ere liburu bat argitaratu zuen. Liburu hura nola sortu zuten kontatzen du. Bi nobela argitaratu ditu.</p>

22. Bertsolaritzan gauzak asko aldatu dira

- **Erref:** BRB-001/031
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:08:56. **Bukatu:** 01:10:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Gaur egungo bertsolari gazteak beste modu batean aritzen dira. Beste hizkera bat erabiltzen da. Orain poto gutxiago egiten dira.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com